


elearazi

zabal bideak eta aireak gure hizkuntzak har dezan arnas

Jaungoiko guztiak ukatzen dituen emakumea *abendua 19, 2013 @ Danele*



Jaungoiko guztiak, zerukoak zein lurrekoak, ukatzen dituen emakumea dugu Amaia Lasa (Getaria, 1948), a e i o u berri bat esan nahi duena, inoren esku artean zimelduko ez denez inoiz ez dena lore bat izango, zuekin denekin oheratu nahi duen itsasoko izakia. Poema solte enblematikoengatik ezagun izanagatik (aipatu berri ditudanetako batzuek guztion oihartzun-makinak martxan jarri dituela da horren adierazle garbia), badirudi ironikoki eta mendeku gisa euskal literaturako jainkoek ukatu dutela getariarra eta egotzi dutela euren kanonaren paradisuatik kanpora; horregatik pentsatzen genuen batek baino gehiagok (bilaketa-lan sakonagoetan hasi aurretik) euskal literaturako emakume idazle aitzindarienak Arantxa Urretabizkaia eta Mariasun Landa izan zirela (eta batik bat Urretabizkaia), jakin gabe aske bizitzeko hainbat kontsigna ematen hasia zitzaigula dagoeneko Lasa 70eko hamarkadan.

Dena ez da noski kanon akademikoa, eta ezin ahaztu periferiari esker bizi dela zentroa, eta bada giroan horrelako errekonozimendu-gogo bat, hainbat belaunalditako kideak ekin diote (diogu) Lasaren obra dagokion tokira altxatzeari. Bide horretan bere aletxoak ipintzeko asmoz antolatu genuen,

halaber, Literatura Eskolan abenduko saio hau, ezin bereziagoa: Josune Muñoz literatur kritikaria lagun eta akuilari, idazle getariarra ere gure artean izan baikenuen.

Muñozek lan eskerga egin du literatur kritikan eta emakumeek idatzitako literaturaren zabalkundearen, Bilboko Skolastikan dihardu irakasle. Hasieran argitu zigunez, bere helburua zen Lasaren bide literarioa, haren osotasun eta aniztasunean islatzea, poesiagintzatik harago ere argitaratutako eta egindakoen irudi bat ematea ikasleoi. Horretarako txosten mardul batean bildu zituen hainbat ale: Zeruko Argian kaleratutako lehen artikulua, poemak, narrazioak, prentsa zein akademiaren kritika... Benetan dokumentu baliagarria; norbaitek interesik balu gustu handiz helaraziko diogu kopia bat. Eta horrela, bidaia modura, elkarrizketa gisa egituratutako eskolan, errepaso bat eman genion emakumea euskal poesiara ekarri zuen autore apartaren lanari.

Guztira lau poesia-bilduma eta narrazio-liburu bat kaleratu ditu Lasak, ondoren badu bere poesiagintza osoa biltzen duen liburu bat, eta XX. mendeko poemak batzen dituen kaiera bat. Horrez gain, hainbat eta hainbat antologiatan agertu dira bere poemak, eta berriki testu bat kaleratu du *Gabrielen Lekua* Arestiri aurten egindako omenaldi-liburuan (non bide batez esateko emakume bakarra baita).

Laburtzea beti da zaila baina oraingo honetan bereziki konplikatu gertatu zait kronika honi forma ematea, hautatzea, urrezko pipitak bazter uzten ari nintzelako gaizki sentitu gabe. Ahal duguna egiten dugu, egin dezakegun bakarra denez. Zorra kitatzeko ez litzateke txarra udako ikastaro bat, mintegi bat, edizio kritiko zabalago bat. Norbaitek hozka egingo diolakoan amuari.



Hastapenak: artikulugintza

Txostenaren sarrera/hitzaurre modura prestatutako testuan Muñozek argi uzten zuenez eta jada esan dugunez, poesiagintza nabarmentzen da batez ere Lasaz aritzean, baina, kritikariaren ustetan funtsezkoa da kontuan izatea jardun osoa, askoz zabalagoa dena. Hortaz, Zeruko Argiako lehen artikuluei (lehen-lehena 1967koa, “Lengo gauean sentitutako sentimentuak...”) heldu genien bete-betean. “Gazte naiz” atalean kaleratutako artikulu laburrak dira, sailkatzeko zailak Muñozen esanetan, hibridoak gaur eguneko terminologian, uztartzen baitute lirikotasuna gai sozialekin hitz lauan.

Rikardo Arregik gonbidatuta iritsi zen Lasa aldizkarira. Hasieran “Gazte naiz” orrian eta ondoren “Herriak eta gizonak”en (esanguratsua izena) idazteari lotu zitzaion, aldi berean poemak sortzen zituelarik. Poesia eta prentsarako idatziak, beraz, hasiera-hasieratik eskutik helduta joan ziren autorearentzat, eta aitortu digunez, gogoko zuen poesiaren eta prosaren arteko mugak puskatzea. Prosa poetiko gisa hartzen zituen aldizkarietarako lanak. Politika erruz jorratzen zuten, bestaldetik ekarritako aldizkarietan irakurritakoak euskarara moldatuz (Frantziako Le nouvel Observateur eta Ingalaterrako The Observer). Gai horiekiko interesa etxetik zetorkion, Lasa-Alegriatarrenean asko jarduten baitzen politikaz, eta giro abertzale eta euskaltzalean hazi baitzen. Iparraldearekin harreman estua izan zuten senideek beti, nebetako batek Baionan eta ondoren Lyonen ikasi zuen, eta aita-amak exiliatuta egon ziren garai batez. Anaiaren bitartez heldu zitzaizkion Lasari Sartre eta Camus (Beauvoir kalean ezagutu zuen), autorearen beraren hitzetan, nebek mutilen gauzak soilik ekartzen zituzten, baina probetxugarriak ziren, edonola ere.

Uhin Berri, 1969

Urte estralurtar hartan argitaratu ziren Lasaren lehen poemak, Juan San Martinek apailatutako antologia batean. Dinamizatzailerik handiak izandako hainbat pertsonarekin elkartzea suertatu zitzaion orduan. Gabriel Aresti zenak idazten jarraitzera animatu zuen lagun baten bitartez bidalitako mezu batean, haren testuek indar handia zutela esanez, eta, horrez gain, bai nebaren bai beraren idatzien aipamenak egiten zituen Arestik sarri. Bestalde, Lasak azpimarratu zuen San Martinen lana, hark sutuki nahi baitzuen antologian emakume idazle gazteak sartzea.

Poema bilduma, 1971

Argitaletxeak perretxikoak bezala agertzen eta desagertzen ziren denboran plazaratu zituen Lasak lehendabiziko liburuak. Lehena nebarekin batera atera zuen, Txillardegik eta Iñaki Beobidek sortutako Itxaropena etxean. Hiru liburu inguru argitaratu eta gutxira eten zen proiektu hura eta arretaz eta aldi berean penaz jakin dugu Bertrand Russellen testuen euskarapen bat kaleratu zutela, Jone Forcadak egina (non dago lan hori!?)

Lau eskuk osatutako liburu horretan daude Lasaren poema mitikoenetako batzuk, eta Muñozek ohartarazi digunez, batzuetan arriskutsua da autore batentzat gisako testu enblematikoak sortzea, gerta baitaiteke irakurleak enblemetan ataskatuta gelditzea, ez atzera ez aurrera ezin eginda eta gainontzeko obra bazter utzita.

Muñozek azpimarratu du, halaber, Lasa aitzindaria izan zela emakumearen gorputza eta erotikotasuna euskal poesiara isurtzearen ekintzan, harena baita emakume batek idatzitako estreinako poema erotikoa, Desira plazer (Txalaparta, 2009) antologia prestatzen ziharduenean (Igor

Estantona eta Edorta Jimenezekin batera) egiaztatu moduan. Itsasoa eta natura aipatzen dira sarritan Lasaren mundu poetikoaz jardutean, baina ezin da inola ere gorputzaren presentzia bazter utzi; izan ere, poesia erotikoaren antologia horretan *Poema bilduma* liburuko dozena erdi poema batzen baitira. Lasak esan digu garaian ez zela batere ondo hartua izan poesiaren gorputzasuna, Berrondo izeneko apaiz baten hitzetan ipiniz: “biak dira txarrak, baina neska okerrena”.

Hitz nahastuak, 1977

(...)

*Emakumetasunean
amatasunean galduak,
libertatearen orde
segurantzari helduak.*

*Ez emakume
ez ama
ez eme
ezin izanik*

*igarotzen genituen
gure egunak.*

Lehenagoan egon bazegoen ere, feminismoaren eragina eta presentzia agerikoagoa da bigarren liburu honetan. 70eko hamarkadan feminismoa indar handiz sartu zen gurean, Lasaren bizileku Donostian ere bizi zebilen, batez ere gaztelaniaz. Amaia Zubiria lagunarekin batera joan ohi zen bileretara, eta galdetzen zuten ea non zegoen euskara. Lasak feminismoa nahi zuen baina bere hizkuntzari eta bere lurrari lotutakoa, bertako egoera, ezaugarri eta baldintzak kontuan hartuko zituen feminismo bat. Garaian gai labaina zen, feminismoa bakar eta osotzat hartzen baitzen. Lasaren ustez zentzu batean hala da; alegia, feminismoa bat da, baina beste zentzu batean bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta horiek errespetatu beharrekoak dira.

Aipagarriak iruditu zaizkigu, baita ere, liburu honen hitzaurre gisa Lasak aukeratutako testuak, eta ondoren horiek izandako bilakaera (frustratua). Rosa Luxemburg pentsalari alemanak gutun batzuk idatzi zizkion presondegitik Sophie Liebknecht adiskideari, gutun izugarri ederrak, Lasari berebiziko inpresioa sortu ziotenak. Gutun-bilduma osoa euskaratu zuen (frantsesetik) eta hainbat pasarte sartu zituen hitz nahastuen sarreran, emakume idazleen genealogia egin eta Luxemburgen ideia ezagutarazi asmoz. Bestetik, bi argitaletxeri aurkeztu zien euskarapen hura, interes editoriala izan zezaketelakoan. Argitaletxeek ez zuten proiektua onartu, zeharkako itzulpena zelako (argudio bitxia eta ikaragarri susmagarria dela ez diguzue ukatuko).

Ni bat ez ezik, gu bat ere bai

Kritikak Lasaren poesiako nitasunaz erruz idatzi badu ere, Muñozek salatu du sarriegietan ez direla berdin irakurtzen emakumeen eta gizonen nitasunak (emakumearena intimista, gizonarena ez); aldarrikatu du Lasaren poesian ni bat egonik ere, gu baterantz doan ni bat dela. Euskal literatura ikertuta ikusten da emakume poeta askori kostatu egiten zaiela gu horretara iristea, baina Muñozentzat hori ez da, inondik inora, Lasaren kasua. Hiru gu topatzen ditu Lasaren lanean: gu euskaldunok, gu emakumeok, eta gu emakume feministok. Gainera, Lasak gehitu du, ni horren erabilera, hasiera batean norbere burua

afirmatzeko modu bat zela, pertsona ororentzat premiazkoa izan arren emakumeentzat aparteko esanahia duena, gure borroka latzenetako bat (izan) baita objektu izatetik subjektu izaterako pausoa ematearena. Gu-a, aldiz, talde baten, herri baten parte sentitzeak sortzen du, feminista eta abertzale izatearen ondorio.

Bikotearena izaten da literaturan beste ohiko gu bat. Gu zehatz horren kasuan Lasaren poesiak "ni eta zu" bat islatzen du, bikotean egonik ere bakoitzak bere esparrua (izan behar) duela akordarazteko, maitasun erromantikoaren moduetatik urruti, aske.

Nere paradisuetan, 1979

Gizonik ez uki!

–ez, ez dut ukituko!

Gizonik ez begira!

–ez bizialargun naiz eta

zurea ez den gizonik ez laztandu!

–ez, ez dut laztanduko

zurea ez den gizonarekin ez etxeratu

–ez, ez naiz etxeratuko

gizonekin eskandalarri ez izan!

–ez, ez naiz izango

zurea izan ez den gizonaren ohekide ez izan

–ez, ez naiz izango

gizonik ez maita!

–ez, gizonik ez dut maitako

maitasuna isuririk

ahizpa eta biok

ohekide bihurtu ginen

arratsalde euritsu batean

Hirugarren liburuak bilakatzen du Lasa poeta ofizialki, nolabait esatearren. Goiko poema horren gordeleku, Muñozek barrez egin zion galde autoreari, ea horixe den lehen euskal poema lesbikoa. Kritikariaren hitzetan bada, kronologikoki behintzat. Lasak emandako azalpenaren arabera, Eliza katolikoak amodio heterosexuala gogoz zapaltzen zuen, beraz pentsa homosexuala, eta pentsa are gehiago lesbikoa. Dena dela, debekuak debeku, maitatzeko ahalmena ez da galtzen, eta hori da inportanteena, eta poemak islatu nahi duena.

Liburua ederra da benetan, eta Rosa Valverderen ilustrazioez lagunduta doa. Kurioso iritzi genion, *Itsasoko izaki* (Maiatz, 2010) azken bildumak ere bai baititu emakume batek sortutako irudiak. Horri buruz galdetuta, Lasak esan zigun beti izan duela gustuko beste emakume batzuekin elkartu eta batera sortzea.

Malintxearen gerizpean, 1988

Ezaguna da Lasaren ibilbidean Nikaraguak izandako garrantzia. Hiru urte eman zituen herrialde hartan, eta bertan jaio zen haren alaba ere. Hasiera batean New Yorken ibili zen, eta han harritu zuen arrazakeriaren presentzia bortitzak. Ez zuen Harlemik espero, eta aurrez aurre egin zuen topo bazterkeriarekin. Kuban bestelako egoera bat ezagutu zuen, berdintasunetik gertuagokoa, Kubako gobernuak izan ditzakeen bestelako akatsak gorabehera. Bertan

ezagututako emakume beltz batek lagundu zion alabaz erditzen, eta Lasak dagoeneko bazuen kontzientzia areago hauspotu zuten hiru urte haietan bizitakoek.

Esperientzia haietatik jaio zen, hain zuzen ere, Lasak (momentuz) argitaratu duen narrazio-bilduma bakarra. Antologietan gutxitan hartzen da kontuan, eta Lasak ere aitortu digu nahiko presaka egindako lana izan zela. Hala ere, obra baliotsua dela iruditzen zaigu, dakartzan gai eta moldeengatik, eta zalantzarik gabe ematen du berredizio baterako bazka.

Oihartzun kritikoa

Bi modu nagusitan hartua izan da Lasaren lana, modu aski kontrajarriak biak ere. Batetik leudeke hasiera-hasieratik preziatu dutenak Lasaren obra, gizon eta emakume: Juan San Martin, Martin Ugalde, Koldo Izagirre, Linda White... Horiek guztiek azpimarratu dute Lasaren garrantzia literarioa, baina zoritxarrez horiek ez dute kanona egin. Kanona Jon Kortazar irakasleek egin du, batez ere, eta berak behin eta berriro kendu du Lasa historiatic (aski justifikatutako salaketa da eta ez nuke nahi pentsa dezazuen Muñoz modu doakoan aritu zenik, baina tokiz ere larri gabiltzanez adibide bi besterik ez: 2000ko *Euskal literatura XX. mendean* liburuan bost lerrotan benteilatzen ditu A. Urretabizkaia eta A. Lasa, eta Quimera aldizkari espainiarreko 2003ko alean –Lasaren poesiagintza osoaren bilduma bazegoen jada– “Literatura vasca actual” izenburupean, 90eko poesiaz jardutean erreferentzia gisa aipatzen ditu M. Lasa, J. Artze eta X. Lete, baina testuan ez da inon ageri A. Lasaren arrastorik). Muñozek salatu zuen euskal literaturak oraindik ez duela garbi eta ozen esaten zer izan den Lasaren ekarpena: berak ekarri diola emakumea poesiari, aitzindaria izan dela hainbat eta hainbat aspektutan (poskolonialismoaz eta feminismoaz aritzean adb.), lehenengo izatearen zailtasunei aurre egin diela ausart...

Alondegiko kristalezko kutxa uzteko ordua iristen ari zitzagula-eta, amaiera ederra eman genion saioari: Lasak bere poemak irakurri zizkigun, itsaso eta kaioen soinuaz lagun.

Beraz, eskerrik sutuenak ematea besterik ez zaigu geratzen, Amaia. Eleazarleon kanonean eta bihotzean behintzat, erdi-erdian izango duzu beti zure lekua.